



“Matxo Jaialdia, barka Azkena Rock Jaialdia. Diru publikoko 200.000 euro matxistak direla salatzen dugu”

@ian_delaCalva (24 talde baino gehiagoren artean emakume bakarra ariko dela jakin ostean)



“Esako urtegiaren ur maila jaitsi ala Zangoza ebakuatzea, ez dago beste aukerarik. Urtegiko magalaren mugimenduek berdin jarraitzen dute”

Esa Ez



“Espero nuen dolumin olatua, baina liburu-denda bateko egunerokoa ezagutzen duzunean oso triste da”

Imanol Agirre, itxi duten Garaio liburu-dendako arduraduna (*El Diario Vasco*)



“Gizarteak gero eta gehiago eskatzen dau LGTB gaiak lantzea”

Pau Guillen, hastear den Zinegoak jaialdiaren zuzendaria (*Bizkaie!*)



Ikurren lege berria sortzeko prozesua martxan da Nafarroan

Argia

Ikurren Legea baliogabetu egingo du Foru Gobernuak, hura sostengatzen duten lau indarrek (Geroa Bai, EH Bildu, Podemos eta Izquierda-Ezkerra) hala adostu eta gero. Zigorrik eragingo ez duen lege berria sortzeko prozesu parte-hartzailea iragarri dute.

Nafarroan “berezkotzat” onartuta ez dauden banderak eraikin ofizialetan paratzen dituztenentzat isunak eta bestelako zigorrak aurreikusten ditu indargabetuko den legeak. Funtsean, ikurrina udalen balkoietan jartzea eragozteko UPNk bultzatutako araua da, eta hainbat jazarpenen iturri izan da, indarrean sartu zenetik.

Erakunde publikoek legez erabili ahal izan dituzten banderak Nafarroakoa,

Europar Batasuneko, Espainiakoa eta udalarena izan dira. Gobernuak lau alderdiek bestelako ikurren erabilera normalizatua bermatu nahi dute lege aldaketarekin, eta bereziki ikurrinarena. “Identitate guztiak kontuan izatea” izango da helburua, haien esanetan.

Prozesu parte-hartzailea

Adierazi dutenez, beste ikur lege bat sortzeko parte-hartze prozesu bat jarriko dute abian. Aurretik, ordea, oraingoa kentzeko prozedurari ekin beharko dio Gobernuak. Indargabetzea hilabete edo hilabete eta erdian burutzea espero dute. Legerik gabe egon bitartean, Foru Hobekuntzak dioena izango da araua. Alegia, Nafarroako ikurrak direla armarrria –“antzinako Nafarroako Erresumaren sinboloa”– eta erdian armarrri hori duen bandera gorria.

“Kortxoeneako desalojoan eraso egin zidaten, eta auzitara eraman ditugu”

ARITZ CEVIDANES, DONOSTIAKO KORTXOENEA GAZTETXEKO KIDEA

Gaztetzaren desalojoan parte hartu zuen segurtasun enpresaren aurka epaiketa izan du Cavidanek. “Auzoak behar zuen hori defendatzeko igo nintzen teilatura. Segurtasuneko bik beso banatik hartu eta lurrera bota ninduten. Ezkerreko besoa atzean jarri zidaten, indar handia erabiliz, eta gerora lesioa izan dut. Belauna aurpegiaren gainean jarri eta eskuburdinak ipini zizkidaten. Orain, dena geldi dago, eraikina botata eta proiektua kolpatuta. ARGIA.EUS (2017-02-10)

